



Andoaingo Udala

## Andoaingo Udalak 2021 udararako aisialdi eskaintza zabala osatu du

Maidar Lainez alkateak, Ekonomia Sustapen, Enplegu eta Gazteria zinegotzi Mari Jose Izagirrek eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolen zinegotzi Oscar Mendok lehen aldiz aurkeztu dute uda 2021erako aisialdirako eskaintza bateratua, non haur eta nerabeek adinaren arabera jardueretan parte hartu ahal izango duten.

Sailen, Alkatetzaren, Ekonomi Sustapen, Enplegu eta Gazteria Sailaren eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolen Departamentuaren lankidetzari esker, ekainaren amaierarako eta uztaileko udalekuek (Leitzaran abentura eta Goazen jolastera) eta kirol udalekuek (igeriketa, Goizean kirolean, tenisa eta bizikleta gehi kirola) osatutako eskaintza erkargarria antolatu dute.

Udaleku hauek orain indarrean dauden osasun legeei jarraituz antolatu dira: taldeak murrizagoak izango dira, ahalik eta jarduera gehien aire zabalean egingo dira eta higiene neurriak beteko dira. Hala ere, neurriak alda daitezke udan indarrean dagoen araudira egokitzeko.

### KIROL JARDUERAK

Oscar Mendo jarduera fisikoko eta kiroltako zinegotziak honako hau adierazi du: "Udal kirol eta jarduera fisikoko zerbitzuak UDA 2021 kirol jarduera fisikorako izen-emateak maiatzaren 5ean irekiko ditu, ekainaren 28tik uztailearen 23ra bitartean".

Hauek dira gazteenentzako jarduerak:

- **Igeriketa** 2009 eta 2017 artean jaiotakoentzat.
- **Goizean kirolean** 2009 eta 2013 artean jaiotako pertsonentzat.
- **Tenisa** 2005 eta 2013 artean jaiotakoentzat.
- **Bizikleta+kirola** 2005 eta 2008 urteen artean jaiotakoentzat.

Hauek dira inskripzio-prozesuaren datak:

- Izen-emateak: maiatzak 5-19.
- Behin-behineko zerrendak eta alegazioak: maiatzak 24-25.
- Zozketa streaming bidez: maiatzak 26.
- Plazak berrestea eta ordaintzea: maiatzaren 29tik ekainaren 4ra.
- Izen ematea plaza libreetan: ekainak 14-20.

"Izen-emateak online egingo dira, jarduera fisiko eta kirol zerbitzuaren webgunean: <http://kirola.andoain.eus> helbidean, eta informazio gehiago nahi izanez gero, [allurralde@andoain.eus](mailto:allurralde@andoain.eus) helbide elektronikoan edo 943 300 147 telefonoan eskatu ahal izango da. Gogoratu pandemia-garai hauetan inoiz baino garrantzitsuagoa dela jarduera fisikoa eta kirola, eta, aire zabalean egin badaiteke, hobe", amaitu du Mendok.

Izena emateko epetik kanpo jasotako eskaerak itxaron-zerrendara igaroko dira.

Programazioa aldatu ahal izango da, osasun edo antolaketa jarraibideen arabera.



## Andoaingo Udala

---

### GOAZEN JOLASTERA

---

Sustapen ekonomiko, Enplegu eta Gazteria sailetik GOAZEN JOLASTERA euskarazko udaleku irekiak ipiniko dira martxan. Hezkuntza izaera nabarmena izango dute, jarduera anitzak aurrera eramango direlarik: tailerrak, jokoak, eskulanak, irteerak... guztiak Andoaingo udalerrian zehar.

**Ekainak 28tik uztaila 30era** bitartean gauzatuko da ekimena **goizeko 9:00tatik eguerdiko 13:00tara**, bi txanda ezberdinetan banatuta.

**2013 eta 2018 urteen artean jaiotako haurrei zuzenduta dago.** Guztira 288 haurrek parte hartu ahal izango dute, eta hauek 6 haurrez osatutako 24 talde ezberdinetan banatuta egongo dira bi txandetan.

Ordaindu beharreko kuota, lehenengo txandan 77,00 eurokoa izango da, eta bigarren txandan berriz 47,00 eurokoa. Bi anai-arreba edo gehiagok txanda berean izena emango balute: lehenengo txandan 63,00 euroko kuota ordainduko da, eta bigarren txandan 38,00 euro.

Mari Jose Izagirre zinegotziak azpimarratu duenez, “pozik gaude udara honetan GOAZEN JOLASTERA berriro ere martxan ipintzea posible izango delako”. Gogorarazi du iaz bertan behera geratu behar izan zutela, “gutxieneko osasun neurriak bermatzea ezinezkoa zelako”. Denbora guzti honetan ikaspen ugari izan dugu eta “talde txiki isolatuetan antolatuta posible izango da gauzatzea”.

### LEITZARAN ABENTURA

---

Uztailerako gazteei zuzendutako aisialdi eskaintzaren edizio berria prestatu du Sustapen ekonomiko, Enplegu eta Gazteria sailak. LEITZARAN ABENTURA ekimenari dagokionez, Leitzaran bailaran emango den udaleku irekia izango da. Bertan, kirol ezberdinak uztartzeko aukera izango da: orientazioa, bizikleta, piraguismoa, eskalada, arko tiroa, ploging...

**2007 eta 2010 bitartean jaiotako gazteei zuzendutako ekimena da.** Udalekua bi txandetan banatuko da, lehenengoa **uztailaren 5tik uztailaren 16ra** eta bigarren txanda **uztailaren 20tik 30era**. Ekimenaren ordutegia **goizeko 9:30etatik eguerdiko 13:00etara** luzatuko da.

Txanda bakoitzean 24 nerabek parte hartu ahalko dute, guztira 48. Txanda bakoitzean 4 talde osatuko dira, talde bakoitza 6 gaztez eta hezitzaile batez osatuak. Ekimen honen prezioa 77 eurotako izango da hamabostaldi bakoitzeko, eta bi anai-arreba edo gehiagok txanda berean izena ematen badute 63,00 eurokoa izango da. Izen emate guztien artean, behin betiko zerrenda zozketa bidez osatuko da, eta hau streaming bidez jarraitzeko aukera egongo da.

Izagirre zinegotziaren ustez “Leitzaran bailaran abentura aisialdi erakargarria prestatu da, iazko esperientzia positiboaren ondoren”. Horretarako, kirol ezberdinak praktikatzeko aukera egongo da, eta “modu jasagarrian elkarbizitzen ikasteko aukera izango dute gazteenek, balio natural bereziko ingurune paregabe batetan”.

Andoain, 2021eko apirilak 29



Andoaingo Udala

## El Ayuntamiento de Andoain completa una amplia oferta de ocio para el verano 2021

La alcaldesa Mainer Lainez, la concejala de Promoción Económica, Empleo y Juventud, Mari José Izagirre, y el concejal de Actividad Física y Deportes, Oscar Mendo, por primera vez han presentado una oferta conjunta de ocio para el verano 2021, en la que las y los niñas/niños y adolescentes podrán participar en diferentes actividades en función de la edad.

Gracias a la colaboración de los diferentes departamentos, Alcaldía, el departamento de Promoción Económica, Empleo y Juventud; y del departamento de Actividad Física y Deportes; han organizado para finales de junio y el mes de julio una atractiva oferta compuesta por las colonias de verano (Leitzaran aventura y Goazen jolastera) y las colonias deportivas (natación, goizean kirolean, tenis y bicicleta más deporte).

Estas colonias se han organizado siguiendo las leyes sanitarias ahora vigentes: los grupos serán más reducidos, el mayor número de actividades se realizarán al aire libre y se cumplirán las medidas de higiene. No obstante, las medidas pueden modificarse para adaptarse a la normativa vigente en verano.

### ACTIVIDADES DEPORTIVAS

El concejal de actividad física y deportes Oscar Mendo, ha indicado que: “el servicio de actividad física y deportes municipal abrirá las inscripciones al programa de actividades físico-deportivas Uda 2021 el próximo 5 de mayo, las cuales se desarrollarán del 28 de junio al 23 de julio.

Las actividades para los más jóvenes son:

- **Natación** para las personas nacidas entre los años 2009 y 2017.
- **Goizean kirolean** para las personas nacidas entre los años 2009 y 2013.
- **Tenis** para las personas nacidas entre los años 2005 y 2013.
- **Bicicleta+deporte** para las personas nacidas entre los años 2005 y 2008.

Las fechas del proceso de inscripción son las siguientes:

- Inscripciones: 5-19 de mayo.
- Listados provisionales y alegaciones: 24-25 de mayo.
- Sorteo por streaming: 26 de mayo.
- Confirmación de plazas y pago: 29 de mayo-4 de junio.
- Inscripción en plazas libres: 14-20 de junio.

“Las inscripciones se harán vía online, en la página web del servicio de actividad física y deportes: <http://kirola.andoain.eus>, y para más información se podrá solicitar al email [allurralde@andoain.eus](mailto:allurralde@andoain.eus) o al teléfono 943 300 147. Recordaros que en estos tiempos de pandemia es fundamental, más que nunca, a la actividad física y el deporte y, si se puede realizar al aire libre, mejor”, ha concluido Mendo.

Las solicitudes recibidas fuera del plazo de inscripción pasarán a la lista de espera.

La programación podrá ser modificada en base a las directrices sanitarias o de organización.



## Andoaingo Udala

---

### GOAZEN JOLASTERA

---

Desde el Departamento de Promoción Económica, Empleo y Juventud se ha promovido los udalekus abiertos en euskara de GOAZEN JOLASTERA. Tendrán un marcado carácter educativo, llevando a cabo múltiples actividades: talleres, juegos, manualidades, salidas... todas ellas realizadas por el municipio de Andoain.

La iniciativa se desarrollará del **28 de junio al 30 de julio** de **9:00 a 13:00 horas**, dividida en dos turnos diferentes.

Está dirigido a **niñas y niños que han nacido entre 2013 y 2018**. En total podrán participar 288 niñas y niños, que estarán repartidos en 24 grupos diferentes de 6 niños en ambas tandas.

La cuota a abonar será de 77,00 euros en el primer turno y de 47,00 euros en el segundo turno. Si dos o más hermanos/hermanas se inscribieran en el mismo turno: en el primer turno se abonará una cuota de 63,00 euros y en el segundo turno 38,00 euros.

La concejala Mari Jose Izagirre ha destacado que "estamos contentos de que este verano podamos volver a ponernos en marcha GOAZEN JOLASTERA". Recuerda que el año pasado tuvo que suspenderse porque "no era posible garantizar las mínimas medidas sanitarias". Durante todo este tiempo hemos realizado numerosos aprendizajes y "organizándonos en pequeños grupos aislados será posible llevarlos a cabo".

### LEITZARAN ABENTURA

---

Para julio el departamento de Promoción Económica, Empleo y Juventud ha preparado una nueva edición de la oferta de ocio dirigida a los jóvenes. En cuanto a la iniciativa LEITZARAN ABENTURA, será un campamento abierto que se impartirá en el valle Leitzaran. En ella se podrá combinar diferentes deportes: orientación, bicicleta, piragüismo, escalada, tiro con arco, ploging...

Se trata de una iniciativa dirigida a **personas jóvenes nacidas entre 2007 y 2010**. El campamento se dividirá en dos turnos, el primero **del 5 al 16 de julio** y el segundo **del 20 al 30 de julio**. El horario de la iniciativa **se ampliará de 9:30 a 13:00 horas**.

En cada turno podrán participar 24 adolescentes, un total de 48. En cada turno se formarán 4 grupos compuestos por 6 jóvenes y un educador. El precio de esta iniciativa será de 77 euros por quincena y si dos o más hermanos/hermanas se inscriben en un mismo turno será de 63,00 euros. Entre todas las inscripciones, la lista definitiva se completará por sorteo, y ésta podrá seguirse por streaming.

Para el concejal Izagirre "se ha preparado una atractiva oferta de ocio de aventura en el valle Leitzaran, tras la positiva experiencia del año pasado". Para ello, habrá la posibilidad de practicar diferentes deportes y "las y los más jóvenes podrán aprender a convivir de forma sostenible en un entorno único, de especial valor natural".

Andoain, 29 de abril de 2021